



XXVIII Cursos de Verano / XXVIII. Uda Ikastaroak XXI Cursos europeos / XXI. Europar Ikastaroak

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea

Donostia - San Sebastián, 2009



3.4 ELKARGUNEA

Gerra zibila euskal literaturan (1936-2009) (W)

Zuzendaria:

Lourdes Otaegi Imaz.

*Letren Fakultatea. Vitoria-Gasteiz. UPV/EHU.
Euskaltzaindiaren Literatura Ikerketa Batzordea.*

Helburuak:

Gerra Zibila amaitu zela berrogeita hamar urte betetzen diren urte honetan, Euskaltzaindiaren Literatura Ikerketa Batzordeak (LIB) gertakari hark euskal literaturan izan duen harrera eta isla hartu du aztergai.

Hiru dira ikastaroan zehar garatuko diren hitzaldien xedeak:

- 1.- Euskal Literaturan Gerra Zibilari buruz mamitzen joan den irudien azterketa egitea. Horretarako, gerraren testuinguru hartan bertan eginiko literatura hartuko da lehenik mintzagai, hala prentsa bidez aditzera eman zena Iparraldean bezala Hegoaldean (Eskualduna, Eusko Deya, Eguna, Euzkadi,...), nola garaiko idazleen sorkuntzek emandako lekukotza, hala nola Iratzeder olerkariarena. Eta beste alde batetik, gerraostean zehar mamituz joan den lekukotzaren ezaugarriak aztertuko dira.
- 2.- Diskurtso historiko eta diskurtso literarioaren arteko harremanen inguruko gogoetak zabaltzea. Honi dagokionez, historiagileek egindako gerraren interpretazio eta azalpena jarriko da harremanetan literaturan egindako "irakurketa"rekin, hala nola, Gernikako bonbardaketa bezalako gertakariak, edota gerraren ondorioz erbesteratuek eleberrian, olerkian eta antzerkian izan duten isla.
- 3.- Memoria indibidualaren eta literaturaren harremanen inguruko hausnarketa berezitua ere izango da aztergai: lekukoen memoriatik fikzio literarioaren eraketaraino. Alde honetatik, gerraren oroitzapenaren modulazio eta ezaugarri ezberdinak aztertuko dira. Lehenik, bertako protagonista izan zirenen kontaketa direnean, hala nola S. Salaberriaren *Neronek tirako nizkin* (Auspoa 1964) bezalakoetan; bestalde, besteren ahotik entzundako memoriakizunak direnean, hala nola, J.A. Arrietaren *Abuztuaren hamabosteko bazkalondoa* (GAK 1979) edota bestelako tratamendu fikzionatu baten ekaik bilakatzen direnean, hala nola, J. Sarrionandiaren ipuinetan (*Ifarraldeko orduak*, Elkar, 1990) edo R. Saizarbitoriaren eleberrietan (*Bihotz bi*, Erein, 1995).

Euskaltzaindia-ren lankidetzaz.

Matrikula-prezioak: maiatzaren 31 arte: 70 €. Ekainaren 1etik aurrera: 84 €.

Balio akademikoa: 30 ordu.

Hizkuntza ofiziala: euskara.

EGITARAUA

uztailak 15

- 9:00etan Dokumentazio banaketa
- 9:15etan "Gerra Zibila eta narratiba ikuspegi orokorra"
JON KORTAZAR URIARTE.
Letren Fakultatea. Vitoria-Gasteiz. UPV/EHU.
- 10:30etan Etenaldia

Cursos de Verano / Uda Ikastaroak (cursosverano@ehu.es)

Apdo. 1.042. E-20.080 Donostia-San Sebastián / Tel. (+34) 943.219.511 / 943.219.751; Fax. (+34).943.219.598
<http://www.sc.ehu.es/cursosverano>

10:45etan “Ixilaldiaren gerraostea narratiban”
ANA TOLEDO LEZETA.
Deustuko Unibertsitatea. Donostia-San Sebastián.

12:00etan Etenaldia

12:15etan “Gerra Zibila. Iparraldeko ikuspegia”
JEAN HARITSCHELHAR.
Iker UMR. Baiona. Frantzia.

13:30etan Laburpen saioa / Bibliografiari buruzko saioa

uztailak 16

9:15etan “Gerra Zibila eta bere erbesteak euskal literaturan”
MARIA JOSE OLAZIREGI ALUSTIZA.
Letren Fakultatea. Vitoria-Gasteiz. UPV/EHU.

10:30etan Etenaldia

10:45etan “Euskal teatroa Gerra Zibilean eta Gerra Zibila euskal teatroan”
PATRI URKIZU SARASUA.
UNED. Madrid.

12:00etan Etenaldia

12:15etan “Gernikako bonbardaketa euskal literaturan. Errepresentazioa eta begirada euskal literaturan”
IRATXE RETOLAZA GUTIERREZ.
Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea. Leioa. UPV/EHU.

13:30etan Laburpen saioa / Bibliografiari buruzko saioa

uztailak 17

10:30etan Etenaldia

9:15etan “Ramon Saizarbitoriaren Bihotz Bi”
UR APALATEGI IDIRIN.
Université de Pau et des Pays de L’Adour. Pau. Frantzia.

10:30etan Etenaldia

10:45etan “Ramon Saizarbitoriaren Hamaika pauso eta Gorde nazazu lurpean”
IÑAKI ALDEKOA BEITIA.
Irakasleen U.E. Donostia-San Sebastián. UPV/EHU.

12:00etan Laburpen saioa / Bibliografiari buruzko saioa